

EBAZPENA / RESOLUCION

Espediente zk./ Expediente nº: 4010/2026

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Norgehiagoka bidezko dirulaguntzak/ Subvenciones por Concurrencia Competitiva

Espedientearen gaia/ Asunto del Expediente: Norgehiagoka bidezko Diru-laguntzen deialdia eta emakidapena / Convocatoria y Concesión de Subvenciones por Procedimiento de Concurrencia Competitiva - Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpreseko dirulaguntzak

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

2025eko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Galdakako udalerriko merkatarien, ostalarien eta zerbitzu-enpresen elkarteei laguntzak emateko oinarri arautzaile espezifikoak hasiera batean onartu zituen Udalbatzak. Testu osoa 2025eko martxoaren 14ko "Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko" 51. zenbakian argitaratu zen.

Jendaurreko erakustaldia egiteko epea igaro ondoren eta alegaziorik aurkeztu ez denez, oinarri arautzaileak behin betiko bihurtzen dira.

Kreditua dago 24.4314.48120 partidan.

Toki-sustapeneko eta enplegu teknikiariaren txostena dago, 2026eko apirilaren 15an.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 27 de febrero de 2025, aprobó inicialmente las bases reguladoras específicas para la concesión de ayudas a las asociaciones de comerciantes, hosteleras/os y empresas de servicios del municipio de Galdakao. El texto íntegro consta publicado en el "Boletín Oficial de Bizkaia" número 51 del 14 de marzo de 2025.

Transcurrido el periodo de exposición pública sin haberse producido alegaciones, las bases reguladoras pasan a ser definitivas.

Existe crédito en la partida 24.4314.48120

Existe informe de la Técnico de Promoción Local y Empleo de fecha 15 de abril del 2026

2026(e)ko apirilaren 16(a)(e)ko PR/2026/1192 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko apirilaren 16 (a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/1192 de 16 de abril de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 16 de abril de 2026.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

LEHENENGOA.- Tokiko Garapenaren eta Enpleguaren arloko deialdia onartzea, Ebazpen honen Eranskinean jasotako baldintzetan.

PRIMERO.- Aprobar la convocatoria, correspondiente al ámbito del Desarrollo Local y del Empleo, en los términos que se recogen en el Anexo a la presente Resolución.



BIGARRENA.- Dirulaguntzen Deialdiari buruzko informazioa ez ezik, eman diren dirulaguntzei buruzkoa ere bidaltzea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzetan.

HIRUGARRENA.- Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez. Era berean, deialdiaren testu osoa Udaleko Iragarki Taulan eta udal webgunean argitaratzea.

SEGUNDO.- Remitir a la Base Nacional de Subvenciones, además de la información sobre la convocatoria, información sobre la concesión o concesiones recaídas en los términos establecidos en la normativa aplicable.

TERCERO.- Publicar un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia por conducto de la Base de Datos Nacional de Subvenciones. Asimismo, publicar en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal, el texto íntegro de la convocatoria.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**





GALDAKAOKO MERKATARIEN, OSTALARIEN ETA ZERBITZU-ENPRESEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

1. ARTIKULUA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 27ko ohiko saioan, hasierako onespena eman zien Galdakaoko merkatarien eta ostalarien elkarteei laguntzak emateko oinarri arautzaileei.

Entzunaldi-izapidea burutu ostean, alegaziorik aurkeztu ez zirenez, oinarri arautzaileak behin betikoak bihurtu ziren Dekretuaren bitartez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Deialdi hau Datu Base Nazionalera bideratu da, eta honen bitartez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialera. Horrez gain, deialdia eta aipatutako Oinarri Arautzaileak Galdakaoko Udalaren web orrian kontsultatu ahal izango dira.

Ematen diren laguntzak dirulaguntzat hartuko dira, eta arau hauen arabera arautuko dira: Galdakaoko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (2005eko irailaren 9ko BAO, 172. zk.); 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta Galdakaoko Udalaren Aurrekontu Orokorra Betearazteko Araua.

2. ARTIKULUA.- AURREKONTU-KREDITUAK ETA DEIALDIKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA

Dirulaguntza horretara bideratutako kreditua, guztira, 300.000€ euro da, Udal honen 24.4314.48120 aurrekontu-partidaren kontura, hargatik eragotzi gabe hasierako zuzkidura handitzea, aurrekontu-baliabideen arabera.

Erakunde bakoitzak egoki jotzen dituen jarduketa, proiektu edo kanpaina guztiak aurkeztu ahaliko ditu. Beraz, erakunde onuradun bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa hasieran diruz laguntzeko onartutako jarduketaren zenbatekoen batura izango da.

Laguntza honetarako eskuragarri dagoen kreditu osoaren artean, gehienez 100.000€ ostalaritzarekin lotutako jarduketa, proiektu edo kanpainera bideratuko dira, eta horiek sektore horretako establezimendu ordezkapen nahikoa egiaztatzen duten elkarteek kudeatuko dituzte. Gehienez 200.000€ merkataritzaren eta zerbitzuekin lotutako jarduketa, proiektu edo kanpainera bideratuko dira, eta horiek sektore horretako establezimendu ordezkapen nahikoa egiaztatzen duten elkarteek kudeatuko dituzte. Erakundeei esleitutako kopuru guztien baturak ezingo du inola ere gainditu eskuragarri dagoen kreditu guztia (300.000€).





3. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA ETA HELBURUA

Dirulaguntza honen helburua Galdakao udalerriko hirigunean kokatutako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzu-sektorearen asoziazionismoa aktibatzea, bultzatzea, profesionalizatzea eta sustatzea da.

Horretarako, dirulaguntza emango zaie Galdakako merkatarien, ostalarien eta zerbitzuen-sektoreko elkarteek proposatutako proiektuei, programei eta jarduketei. Horri esker, Galdakako Udalak sektore hauentzako jardueren urteko programa bakarra zehaztu ahalko du.

4. ARTIKULUA.- LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA ETA BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntzak emateko araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-araubidea da.

Jarduketa-programa bakarra egiteko, erakunde eskatzaile bakoitzak bere jarduera-proposamena aurkeztuko du, deialdi hau arautzen duten oinarri arautzaileen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera. Jarduketan lehentasuna ezartzeko, aipatutako oinarrien 7. artikuluan jasotako eta garatutako balorazio-irizpide batzuk onartu dira. Bestek beste, erakundearen ordezkartza, proiektuen kalitate teknikoa eta proiektu horien eragin soziala. Azken irizpide horren barruan, euskararen sustapena, genero-berdintasunaren integrazioa, ingurumen-jasangarritasuneko irizpideekin lerrokatzea eta irisgarritasun unibertsalaren integrazioa baloratuko dira.

Irizpide horiek **erakunde eskatzaileek aurkezten duten jarduera, proiektu edo kanpaina bakoitzean** aplikatuko dira, eta jarduketan hurrenkera bat ezarriko da (balorazio-proposamena); horiei dirulaguntzak esleituko zaizkie, harik eta dagoen guztizko kreditua agortu arte (300.000€). Kontuan hartu behar da ostalaritzara bideratutako jarduketarako esleitutako zenbatekoen batura ez dela inoiz 100.000 eurotik gorakoa izango, eta merkataritzarekin eta zerbitzuekin lotutako jarduketa, proiektu edo kanpainen zenbatekoak ere ez direla 200.000 eurotik gorakoak izango.

Jarduerak, proiektuak edo kanpainak diruz lagun daitezkeen ekintzak izan daitezten, oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta gutxienerako puntuazioa bete beharko dituzte, aurrez aipatutako balorazio-irizpideen arabera.

Dirulaguntza hau bateraezina da Udal honek jarduera berak finantzatzeko emandako beste laguntza batzuekin.





5. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK ETA DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Onuradunak:

Galdakaoko merkatarien, ostalarien eta zerbitzu-sektoreko elkarteek jaso ahalko dituzte laguntza hauek, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Galdakao udalerrian legez eratuta eta finkatuta egotea.
- Elkarre gisa legez aitortuta egotea.
- Eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak izatea; erantzukizunpeko adierazpen bidez bermatu beharko dute.
- Galdakaoko udal-mugarrean gutxienez 10 txikizkako establezimendu egotea elkartearen eskaera egiten den unean.
- Elkarteko establezimenduei aldizkako kuotak kobratzea.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezkeen gastuen xehetasunak oinarri arautzaileen 13. puntuan jaso dira.

Hauek dira diruz lagundu ahal izango diren gastuak:

- Diruz lagundutako jarduera bakoitzak sortutako zuzeneko gastu propioak.
- Langileen kostuak: programari lotutako langileei lansariak ordaintzetik eratorritakoak. Inola ere ez da ondorioztatu behar lan-harremanik dagoenik Galdakaoko Udalaren eta diruz lagundutako programa betetzeari atxikitako langileen artean. Ezin izango dira kontzeptu honetan sartu erakundeetako zuzendaritza-batzordeetako edo zuzendaritza-kontseiluetako kideek sortutako gastuak, ezta funtzio horren garapenetik eratorritako bidaia-gastuak eta dietak ere.
- Lokalaren errentamendu-kostuak: baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta onartutako jarduera-programa behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko ezinbestekoak badira.
- Auditoretza-kostuak: erakunderen bat 60.000€-tik gorako jardueren esleipenduna bada, bere urteko kontuak ikuskatu beharko ditu, oinarri





arautzaileen 15. puntuan ezarritakoaren arabera. Auditoretza hori nahitaez jaso beharko da erakunde bakoitzak eskabidearekin batera aurkeztuko duen jardueren hasierako zerrendan, oinarri arautzaileen 4. puntuan jasotzen den bezala. Auditoretza diruz lagun daitekeen gastutzat hartuko da, eta 4.000€ emango dira gehienez.

- Zeharkako kostuak: zeharkako kostutzat hartuko dira jarduera zehatz bati zuzenean lotu ezin zaizkionak, baina diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezkoak diren kostuak.
- Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen baditu. Ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Era berean, gastu hauek ez dira inola ere diruz lagunduko:

- Banku-kontuen interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta administrazio- eta/edo zigor-zehapenak.
- Prozedura judizialen gastuak.

Onuradunek egiten dituzten eta diruz laguntzeko moduko gastuak diren jarduerak edo erosketak alde batera utzi gabe, jarduera horiek garatzen lagundu ahalko die Udalak elkarteei, eta, horretarako, haiek eskatutako azpiegiturak eta elementuak jarri ahalko ditu onuradunen eskura. Entrega horiek gauzatzeko laguntzat hartuko dira, baldin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Aurreikusi gabeko inguruabarren ondorioz, eta salbuespen gisa, aldaketak egin ahalko dira proiektuan, behin betiko jarduera-programa osatu ostean, baldin eta arlo kudeatzaile teknikoak aldeaz aurretik baloratu eta onartu badu. Aldaketa horiek ezingo diete inola ere eragin aurrez puntuatutako balorazio-irizpideei, oinarri arautzaileen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, Galdakako Udalak eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarka, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Erakunde onuradunak hirugarren baten zerbitzuak azpikontratatzeko baditu onartutako jardueraren bat egiteko, azpikontratazio horrek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.





Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, onuradunak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, soilik, dagokion epe barruan daudenak, hau da, 2026eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean egikaritu eta ordaindutakoak. Salbuespen bakarra auditoretza-kostuak izango dira; izan ere, jasotako dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko epean egin ahalko da auditoretza.

Erakundeek eskaeran sartu ahalko dituzte eskaerak aurkezteko epea baino lehen egindako kanpainak, proiektuak, ekintzak eta jarduerak, betiere diruz lagundu daitezkeen epe barruan egonez gero. Kasu horretan, jarduera horien finantzazioa ondoren egingo den balorazioaren mende geldituko da, beste jardueren baldintza berdinetan.

6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Epea: Eskabideak aurkezteko epea hiru lanegunekoa izango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Lekua: Galdakako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez:
<https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/>

Eskabidea, behar bezala beteta, eta harekin batera aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira <https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/> webgunean, onuradunak harreman elektronikoak izatera behartuta daudelako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan zehazten den bezala.

Eskaeran akatsik ikusten bada edo osatugabea bada ez dituelako bete beharreko baldintza guztiak betetzen, erakunde interesdunari dagokion zuzenketa egiteko eskatuko zaio. Errekerimenduari hamar eguneko epean erantzuten ez bazaio, eskaeran atzera egin dela ulertuko da; horretarako aurretiko ebazpen bat eman beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio





Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Dirulaguntzaren eskabidea ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, ez da eskaera onartuko.

Baldintzak egiaztatzeko, eskabidea aurkeztu beharko da, deialdi honen 6. eta 7. puntuetan azaltzen den moduan.

7. ARTIKULUA.- ESKAERAK BIRFORMULATZEA

Aurrekontuaren erabilgarritasunagatik eta eskatutako zenbatekoagatik ezin bada osorik finantzatu jardueraren edo kanpainaren bat, erakunde onuradunari eskatuko zaio jarduera edo kanpaina horren aurrekontua zenbateko erabilgarrira egokitzeko, baloratzeko kontuan hartutako elementuak aldatu gabe, edo, hala badagokio, jarduera horren eskaeran bertan behera uzteko. Hala, balorazio-proposamenaren arabera, hurrengo jarduketari erantzun ahalko zaio.

8. ARTIKULUA.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

Dokumentazio honen edukia izango da **kontuan hartuko den informazio bakarra balorazio-irizpideak aplikatzeko**, dirulaguntzak emateko eta horien zenbatekoa kalkulatzeko.

- **Eskaera:** eskaera aurkezteak berekin ekarriko du oinarri arautzaileen onarpena eta aurkezten den informazio guztia egiazkoa dela aitortzea.
- **Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa:** erakundearen ordezkariaren egiaztatzeko elkartearen Eraketa-akta eta Estatutuak aurkeztu beharko dira. Halaber, bazkideek ordaindutako kuoten erregistroa nahitaez aurkeztu beharko da, ordainagirien edo bankuko idazpenen kopien bidez.
- **Deskribapen-memoria:** emandako ereduari jarraikiz (I. Eraskina). Gutxienez, informazio hau jaso beharko du aurkeztutako kanpaina, proiektu edo jarduketa bakoitzeko:
 - Jardueraren edo proiektuaren izena.
 - Laburpen exekutiboa: erakunde eskatzaileak eskabidean kontuan hartzeko proposatzen dituen jarduketan/proiektuen zerrenda da.





- Elkarteko bazkide diren establezimenduen kopurua. Establezimenduak egiaztatzeko, elkartekideen erregistro-liburua aurkeztu ahalko da, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, edo, elkarte profesionalek aurkeztutako eskaeren kasuan, bazkideen kuotak kobratzeko kontabilitate-idazpenak aurkeztuta ere egiaztatu ahalko da.
 - Aurkezten den jarduketaren helburua eta mota (Oinarri Arautzaileen 4.1, 4.2, 4.3 artikulua).
 - Jardueraren, kanpainaren edo proiektuaren deskribapena. Proposatutako jardueraren deskribapen laburra gehituko da.
 - Proposatutako helburuak. Hautatutako dirulaguntzaren lerroan lortu nahi den helburura egokitzen dela argudiatu.
 - Plangintza: ekintza egiteko aurreikusitako datak definitzea eta egin beharreko zereginak eta jarduerak garatzea, baita kronograma ere.
 - Aurrekontu xehea: aurreikusitako gastuen, horien motaren eta finantzabideen zerrenda, funts propioek beren gain hartutakoak zehaztuta, baita bestelako diru-sarrerak edo dirulaguntzak ere.
 - Berria delako, edo hobekuntzan edo berrikuntzan eragiten duelako nabarmendu nahi den edozein jardura.
 - Jardueraren eragin soziala: hala badagokio, eskatutako jardueraren eragin sozialari buruz adierazitako irizpideei buruzko informazioa, bai eta hizkuntza-inpaktuari (euskara), ingurumen-inpaktuari (garapen jasangarrirako helburuen aplikazioa), irisgarritasunari eta berdintasunari buruzko irizpide bakoitzean hartzen diren neurriei buruzkoa ere.
 - Ekintzaren xede diren negozioen kopurua eta tipologia. Parte hartuko duten negozioen aurreikuspena.
 - Balorazio-irizpideak aplikatzeko garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio.
- Hala badagokio, dagokion Zerga Administrazioaren agiria: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenaren aitortzea, edo eskaintako ondasun eta zerbitzuen truke ez kobratzeagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak ez direla egiaztatzen duen ziurtagiria.

Egiaztatu behar diren datuak:

Galdakako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei dagozkien beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten badiote; kasu horretan, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:





- Ordez kariaren identitatea.
- Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

Salbuespen gisa, Udalak ezin baditu dokumentu horiek eskuratu, berriz ere eskatu ahalko diote interesdunari horiek aurkeztu ditzala.

9. ARTIKULUA.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

Dirulaguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Gehieneko epea igaro eta interesdunei ez bazaie ebazpenik jakinarazi, dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo daiteke.

10. ARTIKULUA.- EBAZPENA INSTRUITZEKO ORGANO ESKUDUNAK

Instrukzioa egiteko organo eskuduna: Galdakako Udaleko Toki Sustapen eta Enplegu departamentuko teknikariak.

Emakida-proposamena egiteko organo eskuduna: gaiaren arabera dagokion Informazio Batzordea.

Ebazteko eskumena duen organoa: Alkatetza edo eskuordetzen duen Zinegotzitzia.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, instrukzioa egiteko eskumena duen organoak (toki-sustapeneko eta enplegu departamentua) ofizioz egingo ditu jarduketak hauek: ebazpen-proposamena egiteko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak.

Eskaerak ebaluatu ondoren, organo instrukzio-egileak txostena egingo du, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko ditu. Kide anitzeko organoak (gaiaren arabera eskumena duen Informazio Batzordeko kide guztiek osatuko dute) espedientea eta kudeaketa-arloaren txostena ikusi ondoren, emakida-proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari, eta bertan adieraziko ditu dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak, bai eta proposamen horren arrazoiak ere. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie.

Administrazioari dagokionez, ebazpen-proposamenak ez dio proposatutako onuradunari inolako eskubiderik ematen, dirulaguntza emateko ebazpena onuradunari jakinarazi arte.





11. ARTIKULUA.- ERREKURTSOAK

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean (artikulu hauetan ezarritakoaren arabera: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 123. eta 124. artikulua), edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean (artikulu honetan ezarritakoaren arabera: 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).
Isiltasunaren ondorioak: ezezkoa.

12. ARTIKULUA.- JAKINARAZTEKO BIDEAK

Ebazpena eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio, edo, hala badagokio, legezko ordezkariari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

13. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Dirulaguntzaren onuradun diren erakundeek bi ordainketatan jasoko dute gainditutako zenbatekoa. Lehenengo ordainketa emandako zenbateko osoaren %80 izango da, eta emateko ebazpena eman ondoren ordainduko da. Bigarren ordainketa emandako zenbatekoaren gainerako %20 izango da, eta emandako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu eta baliozkotu ondoren egingo da. Deialdi honetako 14. artikuluan ezarritakoa kaltetu gabe.

Jarduera-programa egikaritu ostean, erakunde onuradunek nahitaez egiaztatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta diruz lagundutako proiektua edo jarduerak egin dituztela. Nolanahi ere, jasotako funtsak erabili direla gehienez ere bi hilabeteko epean justifikatu beharko dute, diruz lagundu daitekeen aldia amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, eta oinarri arautzaileen 15. artikuluan ezartzen den moduan justifikatu beharko dute.

Diruz lagungarritzat jotzen diren jarduketak eskatu den zenbatekoaren %100ean lagunduko dira diruz. Ez da horrela izango dagokion justifikazioa aurkeztu ondoren egiaztatzen bada benetan egindako gastua zenbateko hori baino txikiagoa dela. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, edozelan ere, benetan egindako zenbatekora egokituko da. Aurrekoak, hala badagokio, aplikatu ez den zenbatekoaren itzulketak ekar dezake. Inola ere ez dira ordainduko hasiera batean onartutako zenbatekoak edo erakunde onuradunek benetan ordaindutakoak baino handiagoak diren zenbatekoak.





Ez justifikatzeak berekin ekarriko du dagokion zehapen-araubidea aplikatzea, zeina arau hauetan jasota dagoen: Oinarri Arautzaileen 16., 17. eta 18. artikulua, Dirulaguntzen Udal Ordenantza eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.




ESKABIDEA • INSTANCIA
Dirulaguntza • Subvenció n:

ESKATZAILAIA • SOLICITANTE		NAN • DNI		GENEROA
Izen-abizenak • Nombre y apellidos				<input type="checkbox"/> B • M <input type="checkbox"/> G • H
Entitatearen / elkartearen izena • Nombre de la entidad / asociación	IFZ • CIF	Eskatzailearen kargua entitatean • En calidad de: (cargo)		
JAKINARAZPENERAKO HELBIDEA • DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN				
Helbidea • Dirección		Zk. • Nº	Solairua • Piso	Aldea • Mano
Herria • Población		PK • CP		Probintzia
Harremanetarako telefonoa(k) • Nº teléfono(s) de contacto		Helbide elektronikoa • Correo electrónico		
Aukeratu lehenetsuzko komunikazio hizkuntza • Elige el idioma preferente de comunicación: Aukeratu bat / Elige una opción				

Eskabidearen datuak • Datos de la solicitud

Eskatutako dirulaguntza • Subvención solicitada: €

 Dirulaguntza norako eskatzen da • Ámbito para el que se solicita la subvención:.. **Aukeratu bat / Elige una opción**
Eskabideari erantsitako dokumentazioa:

- Proiektuaren laburpen-fitxa
- Proiektu zehaztua.
- Aurrekontu zehaztua
- Bestelakoak

Documentación que adjunta a esta solicitud:

- Memoria descriptiva de actuaciones
- Proyecto desarrollado
- Presupuesto detallado
- Otra documentación

Aitortzen dut • Declaro:

 X batez adierazitako dokumentua/k¹ Galdakako Udalaren esku daudela honezker, aurkeztu ziren uneko inguruabarrak aldatu gabe dirautelarik.

 Que el/los documento/s¹ señalado/s con X a continuación ya obran en poder del Ayuntamiento de Galdakao, no habiendo variado las circunstancias existentes en el momento de su presentación.

- Diru-laguntza eskabidea sinatu duenaren NANA.
- Erakundearen edo elkartearen IFZ.
- Erakundearen edo elkartearen estatutuak.
- Erakundearen edo elkartearen inskripzioa dagokion erregistroan egiaztatzen duen dokumentua.
- Aurreko ekitaldian garatutako jardueren memoria.
- Behar bezala betetako hartzekodunen orria.

- DNI de la persona firmante de la solicitud de subvención.
- NIF de la entidad o asociación.
- Estatutos de la entidad o asociación.
- Documento que acredite la inscripción de la entidad o asociación en el registro correspondiente.
- Memoria de actividades desarrolladas en el ejercicio anterior.
- Hoja de acreedores debidamente cumplimentada

Aitortzen dut • Declaro:

Entitate eskatzailea ondorengoek osatzen dutela:

Que la entidad solicitante está formada por:

 Kide kop.:..... Emakumeak:..... Gizonak:.....
 Azken zuzendaritza batzordea adierazitako onetsi zen eta hurengoek osatzen dute (erantsi batzorde berritua)

 Nº de socios/as:..... Nº de mujeres:..... Nº hombres:.....
 Su última junta directiva se aprobó en la fecha señalada y está formada por: (adjuntar junta renovada):

Azken zuzendaritza batzordearen data:

Fecha de la última junta directiva:

	Kargua • Cargo	Izen-abizenak • Nombre y apellido	Telefonoa
1			
2			
3			
4			

¹ Adierazitako agiritako bat Galdakako Udalaren esku egon ezik, edo eskabidea aurkeztu denean agiritako baldintzak aldatuz gero, eskabide-orri honekin batera aurkeztu beharko dira. • En el caso de que alguno de los documentos anteriores no estuviera en poder del Ayuntamiento, o hubieran variado las circunstancias existentes en el momento de su presentación, deberá aportarse junto a esta solicitud.




JARDUERA, KANPAINA EDO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA

IZENA:		
AURKEZTEN DEN JARDUKETA MOTA (4.1, 4.2, 4.3). ²		
JARDUERAREN DESKRIBAPENA		
XEDEA-HELBURUA		
GARATZEN DEN EGUNETAN		
PLANGITZA ZEHAZTUTA:		
AURREKONTUAREN BANAKAPENA		
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	FINATZIAZIOA (Funts propioa, beste dirulaguntzak, Udalako dirulaguntza)
	GUZTIRA	
Alderdi berritzaileak, komunak eta hobetzeko proposamenak		

² Oinarri Arautzaileen 4.puntuan ezarritakoaren arabera:

- 4.1 Animazio- eta dinamizazio-ekintzak
- 4.2 Sustapen- eta komunikazio-ekintzak
- 4.3 Enpresa-sustapeneko eta merkataritza-asoziazionismoko ekintzak





GIZARTE-ERAGINEAN BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK ³
Euskara sustatzeko edo erabiltzeko politikak kontuan hartzen dira? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Zeintzuk?
Helburuen definizioa eta GJHrekiko ⁴ lerrokadura kontuan hartzen da? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Zeintzuk?
Irisgarritasun unibertsaleko neurriak integratzea kontuan hartzen da? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Zeintzuk?
Genero-perspektiboaren integrazioa eta berdintasuna sustatzeko neurriak kontuan hartzen dira? BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/> Zeintzuk?
Ekintzaren xede diren establezimendu kopurua:
BESTEAK

³ Oinarri Arautzaileen 7.3 puntuan ezarritakoaren arabera

⁴ Garapen Iraunkorrako Helburuak





CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA LAS ASOCIACIONES DE COMERCIANTES, HOSTELEROS/AS Y EMPRESAS DE SERVICIOS DE GALDAKAO

ARTÍCULO 1.- RÉGIMEN JURÍDICO Y BASES REGULADORAS

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión ordinaria, celebrada el 27 de febrero de 2025 aprobó de forma inicial las bases reguladoras para la concesión de ayudas para las asociaciones de comerciantes y hosteleros/as de Galdakao.

Tras el cumplimiento del trámite de audiencia sin haberse presentado alegaciones, se procedió a elevar a definitivas las bases reguladoras, mediante Decreto, y se procedió a publicar en el correspondiente Boletín Oficial de Bizkaia.

La presente convocatoria ha sido remitida a la Base de Datos Nacional de Subvenciones, y por mediación de esta, al Boletín Oficial de Bizkaia. Asimismo, la convocatoria y las citadas Bases Reguladoras, podrán consultarse en la página web del Ayuntamiento de Galdakao.

